*Actualización y mejora de las infraestructuras energéticas en la CAPV.*

*Control y análisis de afecciones medioambientales en zonas mineras.*

*Actuaciones de seguimiento e inspección actuaciones de seguridad en túneles.*

## BETETZE MAILA

**EAEko ENERGIA-AZPIEGITUREN EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA.**

Jarduera hau ezin izan da 2015an gauzatu, ahalezko azpiegiturak ezin izan baitziren hasi 2015an.

**INGURUMEN-INPAKTUEN KONTROLA ETA ANALISIA MEATZE-ZONETAN.**

1. Troya meatzea. Mutiloa.

- Hondakinen putzuan dauden monitorizazio-instalazioen jarraipena eta mantenua egitea.
- Hondakinen putzua ixteko ebaluazio-proiektua kontratatzea.

2. Julia meatzea. Bilbo

- Estentsometroen irakurketa egiteko sistemaren jarraipena egitea.
- Ekipoen eguneratzea eta irakurketa-sistema zeroan jartzea.

Bertan behera utzitako meatze-ustiategiak berreskuratzeko.

- Bertan behera utzitako meatze-egiturei buruzko datuak berrikustea. I. fasea.

Jarraipen eta ikuskapen jarduerak, tuneletako segurtasunerako jarduerak.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***ACTUALIZACIÓN Y MEJORA DE LAS INFRAESTRUCTURAS ENERGÉTICAS EN LA CAPV.***

*Se trata de una actuación que no ha podido acometerse en el ejercicio 2015 dado que las infraestructuras susceptibles de ello no iban a poder iniciarse en el año 2015.*

***CONTROL Y ANÁLISIS DE AFECCIONES MEDIO AMBIENTALES EN ZONAS MINERAS..***

*1. Mina Troya. Mutiloa.*

- *Seguimiento y mantenimiento de las instalaciones de monitorización existentes en la balsa de estériles.*
- *Gestión del Proyecto de evaluación de cierre y clausura de la balsa de estériles.*

*2. Mina Julia. Bilbao*

- *Seguimiento del sistema de lectura de los extensómetros.*
- *Actualización de los equipos y puesta a cero del sistema de lectura.*

*Plan de recuperación de explotaciones mineras.*

- *Revisión de los datos existentes sobre estructuras mineras abandonadas. Fase I y II.*

*Actuaciones de seguimiento e inspección actuaciones de seguridad en túneles.*

**TUNELETAKO SEGURTASUN-JARDUEREI JARRAIPENA ETA IKUSKAPENAK EGITEA.**

Tunelen segurtasuna ikuskatzeko eskumena meatze-administrazioari dagokionez, 2015eko otsailaren 12an Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailak zerbitzu-kontratua sinatu zuen ECA, Entidad Colaboradora de la Administración, S.L.U. enpresarekin, 2015 ekitaldian EAEko tuneletako segurtasun-elementuak kanpo-auditorien bidez ikuskatzeko.

Aipatu kontratuaren gauzatzeari dagokionez, ikuskapenak egin dira Anoeta-Zizurkilgo (Gipuzkoa) eta Asteasu-Zumarragako (Gipuzkoa) tuneletan.

2015eko maiatzaren 13an, enpresak idatziz jakinarazi zuen ENACek akreditazioa eten ziola. Ondorioz, kontratua suntsiarazi zen.

***ACTUACIONES DE SEGUIMIENTO E INSPECCIÓN DE ACTUACIONES DE SEGURIDAD EN TÚNELES.***

*Dada la competencia de la administración minera en materia de inspección de aspectos de seguridad en túneles, el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad suscribió con la empresa ECA, Entidad Colaboradora de la Administración, S.L.U., con fecha 12 de febrero de 2015, un contrato de servicios para la inspección mediante auditorías externas de elementos de seguridad en túneles de la CAPV para el ejercicio 2015.*

*La situación de hecho en la ejecución del contrato es la realización de las auditorías en los túneles de Anoeta-Zizurkil (Gipuzkoa) y Asteasu-Zumárraga (Gipuzkoa).*

*Por escrito de fecha 13 de mayo de 2015, la empresa comunica la suspensión de su acreditación por ENAC. Consecuentemente se procedió a la resolución del contrato.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 7511 TURISMOA | *7511 TURISMO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 03 EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNA | *03 DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD* |
| TURISMO ZUZENDARIA | *DIRECTORA DE TURISMO* |

## HELBURUA

EUSKADI ERREFERENTZIAKO TURISMO HELMUGA GISA FINKATZEA

TURISMO INDUSTRIA INDARTZEA ETA FINKATZEA KALITATEZKO TURISMORANTZ

TURISMO GOBERNANTZA

## *OBJETIVO*

*CONSOLIDAR EUSKADI COMO UN DESTINO TURÍSTICO DE REFERENCIA*

*FORTALECER Y CONSOLIDAR LA INDUSTRIA TURÍSTICA*

*GOBERNANZA TURÍSTICA*

## BETETZE MAILA

### EUSKADI ERREFERENTZIAKO TURISMO HELMUGA GISA FINKATZEA

Marketin estrategikoa bultzatzea

Berriz ere, proiekzio turistiko handia duten ekitaldiak babestu ditugu, eta hori lagungarria izan da gure presentzia sendotzeko eta turismo-helmuga gisa ospe handiagoa lortzeko. Hala, 2015ean honako ekitaldi hauek bultzatu ditugu: Bartzelonako Zinemaldia Cat, Emusik 2015, EGOR 2015 -European Golden Oldies Rugby, Euskadi Basque Country pintxo-txapelketa, Behobia-Donostia lasterketa eta Donostiako maratoia.

2015. urtean, berriz ere hainbat programa eta jardun koordinatu ditugu beste hainbat instituzio, erakunde eta eragile publikorekin. Horrela, Nazioarteko proiekzio handia duten ekitaldiak sustatzeko eta merkaturatzeko sinatutako hitzarmenekin jarraitu dugu (Gasteizko Jazzaldia, Donostiako Jazzaldia eta Getxoko Jazza, Donostiako Zinemaldia eta Hondarribiako Blues Jaialdia).

2015. urtean zehar, turismo-liburuxka hauek berrargitaratu edo eguneratu dira: Euskadiko turismo-liburuxka orokorra, Hiri Ihesaldiak, Gastronomia eta Enoturismoa, Euskal Kostaldea eta Euskadiko mapa turistikoa. Gainera, liburuxka tolesgarri berri hauek egin dira: Birding-a, Ibilbideak, Euskal Kostaldeko Geoparkea, BTT Zentroak, Bide Berdeak, Surfirg-a, Donejakue Bidea, Natura Turismoa, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba.

500.135 liburuxka banatu dira egindako sustapen-ekintzetan eta turismo-bulegoetan.

Turismo Atariaren erabiltzaile-kopurua % 3,1 handitu da

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *CONSOLIDAR EUSKADI COMO UN DESTINO TURÍSTICO DE REFERENCIA*

*Impulso al Marketing estratégico*

*Se ha participado nuevamente en el patrocinio de eventos de gran proyección turística, que han contribuido a reforzar la marca Euskadi-Basque Country y a lograr una mayor notoriedad como destino turístico. Así, los eventos apoyados en el 2015 ha sido: Zinelmadia Cat-Festival de Cine Vasco en Barcelona, Emusik 2015, EGOR 2015 -European Golden Oldies Rugby, Campeonato de Euskadi de pintxos, Behobia-San Sebastián, Maratón de Donostia.*

*A lo largo del año 2015 se han coordinado nuevamente programas y actuaciones con otras instituciones, organismos y agentes públicos. Así se ha continuado con convenios para la promoción y comercialización de eventos de gran proyección internacional tales como los Festivales de jazz de Vitoria-Gasteiz, Donostia/San Sebastián y Getxo, Festival Internacional de Cine de Donostia-San Sebastián y Festival de Blues de Hondarribia.*

*Durante el año 2015 se han reeditado y realizado actualizaciones en los siguientes folletos turísticos: general de Euskadi, Escapadas urbanas, Gastronomía y enoturismo, Costa Vasca, y el mapa turístico de Euskadi. Asimismo se han realizado los siguientes folletos desplegables nuevos: birding, paseos, Geoparke de la costa vasca, Centros BTT, Vías Verdes, Surfing, Camino de Santiago, turismo de naturaleza, Reserva de la Biosfera Urdaibai.*

*Se ha repartido 500.135 folletos en las acciones promocionales realizadas y en las oficinas de turismo.*

*El número de usuarios en el Portal de Turismo ha*

aurten, 1.005.606tik 1.036.819ra, eta erabiltzaile guztiak kontuan hartuta, % 17 izan dira berriak.

Saio-kopurua jaitsi egin da, 1.533.346tik 1.387.538ra; alde batetik, bertsio berria martxan jartzean izandako gorabeheren eraginez eta, bestetik, jendea ataria mugikorrean gehiago erabiltzen hasi delako eta gailu horrekin orrialde gutxiago erabili ohi direlako.

Sare sozialetan, Visit Euskadi profilak 85.000 jarraitzaileren langa gainditu du 2015ean, eta guztira 85.738 jarraitzailerekin bukatu du urtea. 2014an 63.458 jarraitzaile izan zituen; beraz, 22.280 jarraitzaile berri izan ditu (% 35eko igoera izan du).

Nazioarteko publikoari zuzendutako profilari dagokionez, 1.989 jarraitzaile izatetik 8.451 izatera pasatu da Visit Basque Country; laukoiztu egin du fan-kopurua, beraz.

Aipagarria da Instagram-en lortutako jarraitzaileen bolumena ere: azken urtean bikoiztu egin da fan-kopurua (1.064tik 2.542ra). Twitter-eko bi profilek ere gora egin dute.

Gure autonomia-erkidegoko turismo-bulegoetan, ITOURBASK Turismo Bulegoen Euskal Sarea sendotu egin da turismo-informazioko sistema integral modura. Sarean sartu diren azkenak Antigua-Zumarragako eta Orozkoko turismo-bulegoak izan dira; dagoeneko 37 atxikipen-hitzarmen daude sinatuta.

Bulego horietaz gain, Turismo Zuzendaritza bi turismo-bulego estrategikoren titularra da; bulego horiek, hain zuzen ere, Bilboko aireportuan eta Getxoko kruzeroen kaian daude.

Itourbask sarearen turismo-bulegoek 1.193.867 bisitari izan dituzte, 2014. urtean baino % 9 gehiago.

Ekainaren erdialdera, 9 tablet jarri dira Itourbask sareari atxikitako turismo-bulegoetan. Hau dena ikus daiteke horietan: Basque Country Magazine aldizkari digitala, Euskadiko turismoari buruzko app ofiziala eta udalerrien turismoko app ofizialak.

Prestakuntza-egutegia oso-osorik gauzatu da, ekintza hauek eginez:

- Inaziotar Bidearen 1. zatiaren aurkezpena, eta Gipuzkoako lurraldeari dagokion bide-zatira ohitzeko bidaia.
- Albaola proiektua eta Oarsoaldea eskualdea bisitatzea.
- Euskadiko turismo-bulegoei surfaren gida-plana aurkeztea.
- Kulturartekotasun-topaketei buruzko hiru eguneko prestakuntza.
- Barnetegi teknologikoak, Basquetour-ekin lankidetzan.

UDOTS-64 Iparraldeko eta Bearnoko turismo-bulegoen

*aumentado este año un 3,1%, pasando de 1.005.606 a 1.036.819, con un aumento del peso de nuevos usuarios del 17%.*

*En el caso de las sesiones ha habido un descenso, pasando de 1.533.346 a 1.387.538, lo que se debe a diferentes incidencias relacionadas con la puesta en marcha de la nueva versión y por al aumento del consumo del portal en el móvil, siendo habitual consumir menos páginas desde este dispositivo.*

*En redes sociales el perfil Visit Euskadi ha superado en 2015 los 85.000 seguidores, con un total de 85.738, frente a los 63.458 fans alcanzados en 2014, un total de 22. 280 seguidores nuevos, lo que supone un aumento del 35%.*

*En el perfil destinado al público internacional, Visit Basque Country se ha pasado de 1.989 a 8.451 seguidores, multiplicando por 4 el número de fans.*

*Destaca también el volumen de seguidores obtenido en Instagram, dónde este último año se ha multiplicado por dos el número de fans, pasando de 1.064 a 2.542. También crecen de forma orgánica los dos perfiles de Twitter.*

*ITOURBASK La Red de Oficinas de Turismo de Euskadi se consolida como sistema de información turística integral en las oficinas de turismo de nuestra Comunidad Autónoma. Con las últimas incorporaciones a la red, correspondientes a las oficinas de turismo de La Antigua-Zumarraga y Orozko sumando 37 los Convenios de adhesión firmados.*

*Además de estas Oficinas la Dirección de Turismo es titular de dos oficinas de turismo estratégicas y ubicadas en el aeropuerto de Bilbao y en el muelle de Cruceros de Getxo.*

*El número de visitantes a las oficinas de turismo de la Red Itourbask ha sido de 1.193.867, un 9% de personas más que el año 2014.*

*A mediados de junio se han colocado 9 tablets en oficinas de turismo adheridas a la Red Itourbask y con el siguiente contenido: Revista Digital Basque Country Magazine; App oficial de Turismo de Euskadi y la App oficial de turismo del municipio.*

*El calendario de formación se ha ejecutado en su totalidad con las siguientes acciones:*

- *Presentación del Camino Ignaciano (parte1) junto con el viaje de familiarización en la parte que corresponde al territorio de Gipuzkoa.*
- *Visita al proyecto Albaola y a la comarca de Oarsoaldea.*
- *Presentación del Plan director de Surf a las Oficinas de Turismo de Euskadi.*
- *Formación durante tres jornadas en relación con los Encuentros Interculturales.*
- *Barnetegis Tecnológicos en colaboración con Basquetour.*

*Se han fortalecido los contactos con la Red UDOTS-64,*

sarearekiko harremanak sendotu dira.

Turismoko lurralde-proiektuei zuzendutako laguntza-programa berri bat jarri da martxan, eta bertako 2 jarduera-ildoetara aurkeztutako 56 eskaeretatik 50i eman zaie laguntza. Hauek dira bi jarduera-ildo horiek: a) destinoen erakargarritasuna hobetzeko turismoko lurralde-proiektuak eta b) berrikuntzaren eta turismo jasangarri eta arduratsuaren bidez destinoen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzen duten proiektuak. Guztira 954.213,18 euro eman dira laguntzetan, eta 2.105.646,10 euroko inbertsioari eman zaio zuzeneko diru-laguntza.

Gainera, Euskal Merkataritza eta Turismoaren Gala egin zen 2015eko urriaren 20an Bilbon, EITBren egoitzan. Hauek jaso zituzten turismo-sariak: berrikuntza-saria: Mutrikuko Arbe hotelak; lehiakortasun-saria: Donostiako Jazzaldiaren 50. urteurrenak; eta, ibilbide profesionalaren saria: TISA S.A.ko zuzendari nagusiak, Matilde Elexpuruk. Epaimahaiak aintzatespen berezia egin zion Gazeoko horma-pinturak aurkitu zituen Juan Jose Lekuonari.

Ezagutzaren kudeaketa eta merkatu-adimena hobetzea.

2015ean, atariaren bertsio berria atera da, Plan Estrategikoa 2020 dokumentuan definitutako posizionamendura egokituta. Optimizatu egin da, mugikor bidez ere irisgarria izan dadin; responsive bertsio bakarra atera da, bateratua eta gailu guztientzat egokitua.

Hori dena egiteko, fitxa berriak sortu behar izan dira atariko baliabide guztientzat, 5 hizkuntza-bertsioetan; eta, horrez gain, markatutako irizpideetara egokitu behar izan dira hainbat produktu, hala nola Natura, Surfing Euskadi, BTTak eta Bide Berdeak.

Inaziotar Bideari buruzko landing berri bat eratu da, produktu turistiko berri garrantzitsu hau ere on-line egon dadin.

Mantentze-lanei dagokienez, 650 baliabidetik gora eguneratu dira eta 670 baliabide baino gehiago sortu; honako hauek nagusiki: bidaia-agentziak, ostatuak, ibilbideak, gastronomia, berriak, agendako ekitaldiak etab.

Turismo-baliabideen datuak berreskuratu dira Euskadiko turismo-baliabide eta -enpresetan turismo-ezagutza eskuratu eta kudeatzeko ezarri beharreko tresna integralerako –Open Data–. Informazio horren Interneteko aurkezpen multzokatuaren prestaketa bukatzea falta da.

**TURISMO INDUSTRIA INDARTZEA ETA FINKATZEA KALITATEZKO TURISMORANTZ**

Eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea hobetzea. Irisgarritasunean eta ingurumen-kalitatean.

Turismo-enpresei modernizatzen eta lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programaren (TEM) bidez, turismo-kalitatearen Q markaren egiaztapena berritzeko

*Red de oficinas turismo de Iparralde y Bearn.*

*Se ha puesto en marcha el nuevo programa de ayudas a proyectos territoriales turísticos, en el que se han apoyado 50 de los 56 solicitudes presentadas a las 2 líneas de actuación que se apoyan en el mismo: a) Proyectos territoriales turísticos que mejoren el atractivo de los destinos, y b) Proyectos que mejoren la calidad y competitividad de los destinos, mediante la innovación y el desarrollo de un turismo sostenible y responsable. El importe total de ayudas concedidas ha ascendido a 954.213,18 € y la inversión directamente subvencionada de 2.105.646,10 €.*

*Así mismo, el 20 de octubre de 2015 se celebró en Bilbao, en la sede de EITB, la Gala de los Premios del Comercio y Turismo Vasco. Los premios de turismo fueron para: Innovación-Hotel Arbe de Mutriku; Competitividad-50 aniversario Jazzaldia, Donostia/San Sebastian; Trayectoria Profesional: Matilde Elexpuru, Directora General de TISA S.A. También hubo un Reconocimiento especial del tribunal a Juan José Lekuona, descubridor de las pinturas murales de Gazeo.*

*Mejora de la gestión del conocimiento y la inteligencia de mercado.*

*En 2015 se ha lanzado una nueva versión del portal adecuada al posicionamiento definido en el Plan Estratégico 2020  Se ha optimizado para el acceso móvil con el lanzamiento de una única versión responsive unificada y adaptada a todos los dispositivos.*

*Todo esto ha supuesto la creación de fichas nuevas para todos los recursos del portal en sus 5 versiones idiomáticas y la adecuación de secciones de productos como Naturaleza, Surfing Euskadi, BTTs, Vías Verdes a los criterios marcados.*

*Se ha creado una nueva landing sobre el Camino Ignaciano con el fin de tener presencia online para este importante nuevo producto turístico.*

*En cuanto  a las labores de mantenimiento, se han actualizado más de 650 recursos y se han creado más de 670 recursos nuevos siendo estos principalmente: agencias de viaje, alojamientos, paseos o Gastronomía además de noticias, eventos de agenda…etc.*

*Se han recuperado los datos de los recursos turísticos para la herramienta de acceso y gestión integral de conocimiento turístico a implantar en recursos y empresas turísticas de Euskadi –Open Data- quedando pendiente de ultimar con Presencia en Internet la presentación agrupada de esta información.*

***FORTALECER Y CONSOLIDAR LA INDUSTRIA TURÍSTICA***

*Mejora de la calidad en los servicios ofertados. En la accesibilidad y en la calidad ambiental.*

*A través del programa de ayudas de apoyo a la modernización y mejora de la competitividad de las empresas turísticas (MET), se ha apoyado un proyecto*

proiektu bati lagundu zaio. Turismo-establezimenduak irisgarritasun-arautegira egokitzeko laguntzarik ez da eman, ordea.

*de renovación de certificación de la Marca Q de Calidad Turística y ninguno relativo a la adecuación de los establecimientos turísticos a la normativa de accesibilidad.*

Prestakuntza eta profesionalizazioa indartzea.

*Refuerzo de la formación y profesionalización.*

Turismo-sektorean ikerketa bat egin da, bai ostatu turistikoetan eta bai bidaia-agentzia eta -operadoreetan dauden prestakuntza-beharren berri izateko; eta, ikerketa horretan, sektorearen erronkei eta enpresen errealitateari egokitutako prestakuntza-plan batean sartu beharko liratekeen hainbat prestakuntza-ekintza proposatu dira, identifikatu diren prestakuntza- eta gaikuntza-beharrizanetatik abiatuta.

*Se ha realizado un estudio sobre las necesidades de formación en el Sector Turístico tanto en los establecimientos de alojamiento turístico como en las agencias de viajes y operadores turísticos en las que se hace una propuesta de acciones formativas que deberían formar parte de un plan de formación adaptado a los retos del sector y la realidad de las empresas a partir de las necesidades de formación y capacitación identificados.*

Deustuko Unibertsitatearekin dagoen hitzarmenaren bidez giza kapitala hartzeko ekintzei dagokienez, 27 ikaslek egin dituzte praktikak turismo-azoka eta -bulegoetan (24 neskak eta 3 mutilek).

*Con respecto a las acciones para la captación de capital humano mediante el convenio con la Universidad de Deusto, han sido 27 estudiantes (24 chicas y 3 chicos) los que han realizado prácticas tanto en ferias como en oficinas de turismo.*

Sektorearen modernizazioa/berrikuntza bultzatzea.

*Impulso a la modernización/innovación en el sector.*

Turismo-enpresei modernizatzen eta lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programara 212 enpresa aurkeztu eta 139ri eman zaie laguntza; horietako 56 ekimen berritzaileen lerroan aurkeztutako proiektuak dira, 82 eskaintzaren modernizazioaren lerroan aurkeztutakoak eta 1 kalitatearen kudeaketa eta ingurumenaren kudeaketako sistema egiaztagarrien ezarpenaren lerroan aurkeztutakoa. Laguntzetan 699.396,54 € eman dira guztira, eta eragindako inbertsioa, berriz, 8.576.566,58 eurokoa izan da.

*Al programa de apoyo a la modernización y mejora de la competitividad de las empresas turísticas se presentaron 212 proyectos de los que se han apoyado 139, de los cuales 56 corresponden a proyectos presentados a la línea de iniciativas innovadoras, 82 a la de modernización de la oferta y 1 a la implantación de sistemas certificables de gestión de la calidad y gestión ambiental. El importe total de ayudas concedidas ha sido de 699.396,54€ y la inversión inducida de 8.576.566,58 €.*

Turismo Zuzendaritzak kudeatzen dituen 2 programa berrikusi eta egokitu dira agertoki turistiko berrira: turismo-enpresei modernizatzen eta lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programa (TEM) eta turismoko lurralde-proiektuei laguntzeko programa (TLP).

*Se han revisado y adaptado al nuevo escenario turístico los 2 programas que gestiona la Dirección de Turismo: el programa de ayudas para la modernización y mejora de la competitividad de la empresas turísticas (MET) y el programa de apoyo a proyectos territoriales turísticos (PTT).*

Turismo-eragileekiko eta haien arteko lankidetza hobetzea.

*Mejora de la colaboración con y entre los agentes turísticos.*

Eusko Jaurlaritza saria emateko laguntza izaten jarraitzen du Hipódromo y Apuestas Hípicas de Euskadi, S.A. erakundeak.

*Se sigue apoyando a la entidad Hipódromo y Apuestas Hípicas de Euskadi, S.A. para la celebración de la entrega del Premio Gobierno Vasco.*

Era berean, Basque Culinary Center fundazioarekin lankidetza-hitzarmena izaten jarraitu da, Euskadin gastronomia-ikerketa eta -berrikuntza sustatu eta bultzatzeko.

*Así mismo se ha continuado con el Convenio de colaboración con la Fundación Basque Culinary Center para apoyar e impulsar la investigación y la innovación de la gastronomía en Euskadi.*

Bestalde, diru-laguntza izendunak eman zaizkie, hitzarmen-bidez, Gipuzkoa eta Bizkaiko ostalaritza-enpresaburuen elkarteei eta SEA Arabako Enpresariak elkarteko ostalaritza atalari, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-industria indartu eta finkatzera bideratutako estrategietan lankidetzan lan eginez jarrai dezaten.

*Por otra parte, se han concedido subvenciones nominativas, gestionadas mediante convenio, a las Asociaciones de Empresarios de Hostelería de Gipuzkoa y Bizkaia, así como a SEA Empresarios de Álava (sección hostelería), para seguir cooperando en las estrategias dirigidas a fortalecer y consolidar la industria turística vasca.*

Azkenik, diru-laguntza izendun bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ganberentzat (hiru merkataritza-ganberentzat, alegia), 2014ko ekitaldian hasitako "Berriz Enpresa" izeneko enpresa-transmisioko programarekin jarrai dezaten.

*Por último, se ha concedido una subvención nominativa a las Cámaras de Comercio Vascas, que engloba a las tres cámaras de comercio, para continuar con el programa de transmisión empresarial "Berriz Enpresa" iniciado en el ejercicio 2014.*

**TURISMO GOBERNANTZA**

Arau-esparru berri bat onartzea.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Euskadiko turismo-lege berriaren zirriborroari buruzko irizpena emateko zain gaude, gero Gobernu Kontseilura bidaltzeko.

Erakundeen arteko harremana sendotzea.

Antolamendu Batzordeak 2 bilera egin ditu Euskadiko turismo-lege berriaren aurreproiektua garatzeko (ordezkari hauek ditu batzorde horrek: sektoreko elkarteak, kontsumitzaileen ordezkariak, sindikatuak eta EAEko ordezkari instituzionalak).

Seinaleztapen turistikoaren eredu bat eta Euskadiko seinaleztapen turistikoaren eskuliburu bat prestatu dira, erakunde eskudunen lankidetzarekin.

Turismo Industriaren kontrola.

Bilera baterako deia egin zitzaien web-plataformei, establezimenduak iragartzeko publizitate guztian establezimendu horien identifikazio-zenbakia jarri beharrak haien jarduera ekonomikoan (web-etan) nolako eragina duen eztabaidatzeko; eta honako hauek joan ziren bilera hartara: Fevitur, Rentals Collection, Feel Free Rentals, Rent Alia Holiday eta Booking.

2015ean, 70 ikuskapen-bisita egin dira turismo-eskaintza erregularizatzeko. Ikuskapen horien ondorioz, 103 alta izan dira Euskadiko Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroan.

***GOBERNANZA TURÍSTICA***

*Aprobación de un nuevo marco normativo.*

*El borrador de la nueva Ley de Turismo de Euskadi se encuentra pendiente del dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi para su posterior traslado al Consejo de Gobierno.*

*Fortalecimiento de la relación interinstitucional.*

*Ha habido 2 reuniones de la Comisión de Ordenación, integrada por las asociaciones, sectoriales, representantes de los consumidores, sindicatos y representantes institucionales de la CAPV, para el desarrollo del anteproyecto de la nueva Ley de Turismo de Euskadi.*

*Se ha elaborado un modelo de señalización turística y un manual de señalización turística de Euskadi con la cooperación de las instituciones competentes.*

*Control de la Industria Turística.*

*Se convocó una reunión con las plataformas webs, a la que acudieron Fevitur, Rentals Collection, Feel Free Rentals, Rent Alia Holiday y Booking, para tratar sobre la incidencia en su actividad económica (webs) de la obligatoriedad de incluir el n. de identificación de los establecimientos en toda publicidad que les anuncie.*

*En el 2015 se han realizado 70 visitas de inspección para la regularización de la oferta turística. Como consecuencia de las citadas inspecciones, se han producido 103 altas en el Registro de Empresas Turísticas del País Vasco.*

**PROGRAMA**

7612 BARNE MERKATARITZA

**ARDURADUNA**

03 EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNA

MERKATARITZA ZUZENDARIA

***PROGRAMA***

*7612 COMERCIO INTERIOR*

***RESPONSABLE***

*03 DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD*

*DIRECTOR DE COMERCIO*

## HELBURUA

MERKATARITZA LANKIDETZA

MERKATARITZA LEHIAKORTASUNA

JAKINTZA

## BETETZE MAILA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren 2013-2016 aldirako Ekintza Planak honako helburu hauek jasotzen ditu: barne-merkatua indartzea, eta ondasun eta zerbitzuen merkatuetan erreforma garrantzitsuak gauzatzea; udalerrietako merkataritza-jarduera bultzatzea; eta merkataritza-jarduera dinamizatzeko tokiko estrategiak garatzea. Horretarako, itun horizontalak eta lankidetza publiko/pribatuko plataformak sortuko dira lurralde-eremuan.

Merkataritzaren etorkizunarentzat funtsezkoa da lanbide-heziketa eta lantaldeek sektoreko zereginetara eta funtzioetara egokitzeko duten gaitasuna hobetzea, eta aintzat hartu behar da giza kapitalean gehiago inbertitzeko premia, hori estuki lotuta baitago jakintza-gizartearen aurrerabidearekin.

Informazioaren teknologien erabilera intentsiboak negozio-eredu berrien beharra ekarri du, eta merkataritzak haietara egokitzen jakin behar du, lehiakortasun-maila handiagoak lortu eta merkatu-zoko berriak garatuko baditu.

Jakintzan oinarrituriko ekonomia baterako trantsizioak berekin dakar, alde batetik, berrikuntza sortuko duten inbertsioak bultzatzea, eta bestetik, merkatuen integrazioa eta globalizazioa egia bihurtzea.

Helburu horiek lortzeko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren 2013-2016 aldirako Ekintza Planak hiru ardatz nagusi eskaintzen ditu bere merkataritza-estrategian lanerako programak haien inguruan antolatzeko: merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea, enpresen arteko lankidetza eta jakintza.

Merkataritza Egokitzeko Planean aurreikusitako helburuak lortzeko, Merkataritza Zuzendaritzak 2015 ekitaldirako jarduna hiru helburu estrategikotan egituratuta dago, eta honako emaitza hauek ditu:

## *OBJETIVO*

*COOPERACIÓN COMERCIAL*

*COMPETITIVIDAD COMERCIAL*

*CONOCIMIENTO*

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*2013-2016 del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, destaca el de fortalecer el mercado interior y abordar reformas importantes en los mercados de bienes y servicios, potenciar la actividad comercial de los municipios y favorecer el desarrollo de estrategias zonales de dinamización de la actividad comercial a través de alianzas horizontales y plataformas de colaboración público/privada de escala territorial. Entre los objetivos señalados por el Plan de actuación*

*Un aspecto sustancial para el futuro del Comercio, es mejorar la formación profesional y la capacidad de adaptación de los equipos a las distintas tareas y funciones del sector, planteando por tanto la necesidad de invertir más en capital humano, objetivo este estrechamente vinculado al progreso de la sociedad del conocimiento.*

*Por otro lado, el uso intensivo de las tecnologías de la información, plantea un nuevo modelo de negocio al que debe responder el sector para conseguir mayores niveles de competitividad, y desarrollar nuevos nichos de mercado.*

*La transición hacia una economía basada en el conocimiento supone, por una parte propiciar las inversiones productivas generadoras de innovación y, por otra, hacer realidad la integración y globalización de los mercados.*

*Con estos objetivos, el Plan de actuación 2013-2016 del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, en su estrategia comercial, señala tres grandes ejes de actuación sobre los que deben pivotar los programas de trabajo, a saber: Mejora de la Competitividad del Comercio, Cooperación empresarial y el Conocimiento.*

*Por tanto, la actividad de la Dirección de Comercio en 2015 para alcanzar los objetivos previstos en el Plan de Adecuación del Comercio, se estructura en los tres objetivos estratégicos señalados con los siguientes resultados:*

**MERKATARITZA LANKIDETZA**

Haren helburua da hirietan merkataritza-lankidetzarako estrategiak garatzen laguntzea, hiri-inguruneen eta merkataritza-jarduera txikiko guneen merkataritza-eraginkortasuna hobetzeko.

Merkataritza-arloko lankidetza-programak aurreikusitako bilakaera izan dute, bai Merkataritzako Bulego Teknikoen kontratazioari dagokionez, bai hiri-gerentziak eta merkatarien federazioekin gauzatutako enpresa-lankidetzarako hitzarmenak garatzeko hitzarmen-kopuruari dagokionez.

2015 ekitaldian, merkataritza-inguruneen dinamizazioari dagokionez, lankidetzarako eta lankidetza publiko/pribaturako 70 akordio garatu dira udalen eta merkatarien enpresa-erakundeen artean. Udalek garatutako hiri-azpiegiturak hobetzeko, 6 milioi eurotik gorako inbertsio induzitua lortu da, eta elkarteek 2 milioi euro inguruko gastua egin dute merkataritza pizteko eta dinamizatzeko.

Bestalde, lankidetza behar duten proiektuak sektorean ezartzeko dagoen zailtasuna kontuan hartuta, Merkataritza Zuzendaritzak ahaleginak bikoiztu ditu testuinguru aproposa sortzeko negozioek partekatutako proiektuetarako. Horretarako, funtsezkoa da EUSKO GANBERAKekin dugun lankidetza-hitzarmena; horri esker, 2015ean saltokien arteko harremanak bultzatzeko jarduerak sustatu dira; “Euskal Merkataritzaren XVII. Topaketa”; merkatari-elkarteen errolda eguneratzea eta zabaltzea eta atzerriko misio partekatuak, euskal merkataritzak behar duen nazioartekotzerako bideak bilatzeko.

**MERKATARITZA LEHIAKORTASUNA**

Ardatz honen helburua merkataritza-establezimenduak modernizatzea da, eta horretarako, teknologikoki aurreratutako aktiboak erabiltzen dira eta establezimendu horien kudeaketa-tresnak hobetzen dira.

Egoera ekonomikoa gorabehera, eta honek sektorean izan duen eragina handia izan arren, merkataritza-egituraren modernizazioa sustatzeko programak parte hartze handia lortu du; 1.300 eskaera baino gehiago jaso dira eta 26 milioi euro inguruko inbertsio induzitua lortu da; oso emaitza ona da, aktiboetako inbertsioei buruz ari garela kontuan hartuta.

Merkataritzaren kalitatea hobetzeko beharrezko bultzada mantentzen da, eta Euskalitekin elkarlanean, kudeaketa aurreratuko programa bat diseinatzen eta gauzatzen ari gara, merkataritza-sarearen lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementu gisa. Horren bidez, 2015ean 217 merkataritza-enpresari lagundu zaie, prestakuntza- eta hobekuntza-prozesuak bideratuz, eta horietako 146k bigarren urtez jaso dute babesa.

Halaber, enpresa-lehiakortasuna hobetzeko, Negozio Eredu Berrien katalogo bat egin zen, eta 2015ean Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Merkataritza Zuzendaritzaren bidez, zabalkunde

***COOPERACIÓN COMERCIAL***

*Se centra en favorecer el desarrollo de estrategias de cooperación comercial urbana, encaminadas a la mejora de la eficiencia comercial de los entornos urbanos y áreas de baja intensidad comercial.*

*Los programas de cooperación en el Comercio han alcanzado el desarrollo previsto, tanto en la contratación de Oficinas de Técnicas de Comercio, como en el número de convenios para el desarrollo de gerencias urbanas y acuerdos de colaboración para la cooperación empresarial formalizados con las federaciones de comerciantes.*

*Para la dinamización de entornos comerciales, en 2015 se han desarrollado un total de 70 acuerdos de cooperación y colaboración público privada entre ayuntamientos y organizaciones empresariales de comerciantes. La inversión inducida para la mejora de infraestructuras urbanas, desarrollada por los Ayuntamientos supera los 6 millones de euros. Por su lado, las asociaciones han alcanzado un gasto cercano a los 2 millones de euros, en procesos de animación y dinamización comercial.*

*Por otro lado, la dirección de Comercio, consciente de la dificultad de introducir en el sector proyectos que requieran cooperación, redobla los esfuerzos para la creación de un contexto propicio para los proyectos compartidos por los negocios. Para ello, es fundamental el acuerdo de colaboración con EUSKO GANBERAK, mediante el cual en 2015 se han impulsado actividades para favorecer el contacto entre los comercios; XVII edición de “Encuentros del Comercio Vasco”; actualización y difusión del Censo de Asociaciones y misiones compartidas al exterior buscando caminos para la necesaria internacionalización del comercio vasco.*

***COMPETITIVIDAD COMERCIAL***

*Este eje busca impulsar la modernización de los establecimientos comerciales, mediante la incorporación de activos tecnológicamente avanzados y la mejora de sus instrumentos de gestión.*

*A pesar de la situación económica y el gran efecto que ha tenido en el sector, el programa que fomenta la modernización de la estructura comercial ha conseguido un alto nivel de participación; ha superado las 1.300 solicitudes y ha generado una inversión inducida muy cercana a los 27 millones de euros, magnitudes satisfactorias tratándose de inversión en activos.*

*Se mantiene el necesario impulso a la mejora de la calidad en el Comercio, y en colaboración con Euskalit se trabaja en el diseño y ejecución de un programa de gestión avanzada. Un elemento clave para la mejora de la competitividad del tejido comercial, mediante la cobertura y tutela de procesos de formación y mejora, que en 2015 han implicado a 217 empresas comerciales, de las que 146 están en segundo año de tutelaje.*

*Con el objetivo de mejorar la competitividad empresarial se realizó un catálogo de Nuevos Modelos de Negocio, y durante 2015 el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco, a través de la*

kanpaina eta prestakuntza-ikastaroak egin dira merkataritza-enpresetako langileak negozio eta kudeaketa estrategia berrietan orientatzeko eta prestatzeko, horrela, saltokien lehiakortasun posizionamendua hobetzen laguntzeko. Hain zuzen, guztira, 77 prestakuntza-jarduera egin dira 42 udalerritan eta horietan 1.000 lagunek parte hartu dute.

*Dirección de Comercio puso en marcha una campaña de difusión e impartición de cursos, con el propósito de orientar y formar al personal de las empresas comerciales, en nuevas estrategias de negocio y gestión, que ayuden a los comercios a mejorar su posicionamiento competitivo. En conjunto se impartieron 77 cursos en un total de 42 municipios, con cerca de 1.000 participantes.*

2015ean, Merkataritza-dibulgazioko programaren ildoan, merkataritza elkarteei laguntza eman zaie hainbat dibulgazio-jarduera, jardunaldi eta prestakuntza-ikastaro egiteko, horien bidez sektorean profesionalizazioa hobetzeko. Hain zuzen, 39 prestakuntza-jarduera egin dira.

*Durante 2015, el programa de divulgación Comercial ha apoyado a las asociaciones de comerciantes en la realización de diversas actividades, jornadas y cursos de formación, encaminadas a mejorar la profesionalización del sector, con un total de 39 actividades formativas.*

Negozioen jarraitutasuna bermatze aldera, lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Eusko Ganberekin enpresa-transmisiorako programa bat garatzeko. Horretarako, jarraitutasuna bermatzeko ezagutza ematen zaie enpresei eta alde bien harremana sustatzen da elkarlanean jarraitutasuna bultzatzeko.

*Se ha suscrito con Eusko Ganberak un convenio de colaboración para el desarrollo de un programa de transmisión empresarial, intentando contribuir a la continuidad de los negocios. Para ello, se facilita el conocimiento de los comercios que suponen una oportunidad de transmisión, y por supuesto el contacto entre ambas partes de forma que colaborando puedan favorecer su continuidad.*

Urtero bezala, merkataritza-sektorean salmentak bultzatzeko eta dinamizatzeko publizitate-kanpaina egin da. Kanpaina horren bidez euskal gizarteari gogorarazi zaio tokiko merkataritzan eta herrietako bizitzan duen eragina. Merkataritzarentzat garrantzitsuak diren aldiak heldu baino lehen egiten da, esate baterako Gabonen edo urtarrileko beherapenen aurretik. Alde batetik, erosketak aurretik egitea bultzatu nahi du, sektoreak eskatzen duen moduan; bestetik, gastu handiko aldietan tokiko merkataritzari laguntza emateak duen garrantzia gogorarazi nahi du.

*Con objeto de favorecer y dinamizar ventas en el sector comercial, ha tenido lugar la campaña publicitaria que anualmente recuerda a la sociedad vasca la importancia del papel que tiene el comercio local, en la economía y la vida de nuestros municipios. Se realiza en la época del año previa a periodos asociados a grandes, como las Navidades y las rebajas de enero. Se busca, por un lado activar las compras con antelación, algo que el sector demanda, y también recordar la importancia de apoyar al comercio local en los periodos de gasto más fuertes.*

**JAKINTZA**

***CONOCIMIENTO***

Jakintza zabaltzeari dagokionez, Merkataritza Banaketaren Behatokiak 2015. ekitaldirako aurreikusitako jarduerak egin ditu. Gainera, albiste kopuru garrantzitsua argitaratu da, 4.000 inguru, eta merkataritza-banaketari buruzko jardunaldietan eta ikastaroetan parte-hartze handia egon da.

*En los trabajos de difusión del conocimiento, como es habitual, el Observatorio de la Distribución Comercial ha realizado las actuaciones previstas para el ejercicio 2015, publicándose un importante número de noticias, prácticamente 4.000, y se ha desarrollado una amplia participación en jornadas e impartición de cursos sobre distribución comercial.*

Merkataritza-dinamizatzaileentzako prestakuntza-programari dagokionez, 26 beka eman dira eta merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak gaitzeko ikastaroak egin.

*En relación con el programa para la formación de dinamizadores comerciales, se han alcanzado 26 becas y se han realizado los cursos de capacitación de dinamizadores de la distribución comercial.*

**PROGRAMA**

7613 NAZIOARTEKOTZEA

**ARDURADUNA**

03 EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNA

NAZIOARTEKOTZE ZUZENDARIA

**HELBURUA**

1. ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEKO PROZESUAK SUSTATZEA

2. LANBIDE- ETA GIZARTE-GAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK EKONOMIA IREKIAREN ERRONKARI AURRE EGITEKO TREBATZEA

3. EUSKAL ESPORTAZIOEN HELBURU GEOGRAFIKO ETA SEKTORIALA DIBERTSIFIKATZEA

4. KANPOKO JARDUERAK ERAKARTZEKO GAITASUNA FABORATZEA

LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA ETA LEHIAKORTASUNERAKO LANKIDETZA

**BETETZE MAILA**

**1. ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEKO PROZESUAK SUSTATZEA**

Global Lehian 2015 programari esker EAEko 535 enpresa txiki eta ertainek eskatu dituzte diru-laguntzak haien lehiakortasuna hobetzeko nazioartekotzearen bidez.

Hauetatik 465 izan dira onuradun, honako banaketa izan delarik, etapaz-etapa: hastea, 55 enpresa; sendotzea, 396 eta kanpo-ezarpenak 14.

Guztietatik 22 dira lankidetza ekimenak (11 esportazio-partzuergo eta beste 11 salmenta eta sustapen-talde); gainontzekoak berriz -443-, banakako ekimenak dira.

Horretaz gain, hauetako 83 enpresak jaso dute diru-laguntza talentua sustatu eta baliatzeko, eta merkatu globalaren eskakizunei egokitzeko.

**2. LANBIDE- ETA GIZARTE-GAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK EKONOMIA IREKIAREN ERRONKARI AURRE EGITEKO TREBATZEA**

2015ean zehar 99 bekadun izan dira formatuak Nazioartekotze bekak 2014 programari esker.

Lankidetza hitzarmen bat sinatua izan da EHUrekin

***PROGRAMA***

*7613 INTERNACIONALIZACIÓN*

***RESPONSABLE***

*03 DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD*

*DIRECTORA DE INTERNACIONALIZACIÓN*

***OBJETIVO***

*1. IMPULSAR LOS PROCESOS DE INTERNACIONALIZACIÓN DE LAS EMPRESAS*

*2. DESARROLLAR PERSONAS CON CAPACIDADES PROFESIONALES Y SOCIALES PARA RESPONDER A LOS RETOS DE UNA ECONOMÍA ABIERTA*

*3. DIVERSIFICAR EL DESTINO GEOGRÁFICO Y SECTORIAL DE LAS EXPORTACIONES VASCAS*

*4. FAVORECER LA ATRACCIÓN DE ACTIVIDADES DEL EXTERIOR*

*ESTRATEGIA DE COOPERACIÓN PARA LA COMPETITIVIDAD*

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. IMPULSAR LOS PROCESOS DE INTERNACIONALIZACIÓN DE LAS EMPRESAS***

*A través del programa de ayudas Global Lehian 2015 un total de 535 empresas PYME con razón social en la CAPV han solicitado ayudas para mejorar en competitividad de cara a su internacionalización.*

*De ellas, 465 han resultado beneficiarias de las ayudas, con la siguiente distribución por etapas: 55 empresas en Iniciación, 396 en Consolidación y 14 en Implantaciones en el exterior.*

*Del total de proyectos beneficiarios, 22 corresponden a actuaciones en cooperación (11 consorcios y 11 grupos de promoción). El resto -443- corresponden a proyectos individuales.*

*Adicionalmente, se ha financiado a 83 de los proyectos beneficiarios para la activación del talento y adecuación al mercado global.*

***2. DESARROLLAR PERSONAS CON CAPACIDADES PROFESIONALES Y SOCIALES PARA RESPONDER A LOS RETOS DE UNA ECONOMÍA ABIERTA***

*Durante 2015 se han formado 99 becarios y becarias por el programa de Becas de Internacionalización 2014.*

*Se ha firmado un convenio de colaboración con la UPV*

formazio programa hau onartua izan dadin berezko titulu gisa. 2015ko deialdi honetan 85 bekadunek lortu dute titulua.

*para el reconocimiento como título propio del programa formativo de los becarios de Internacionalización. En esta convocatoria 2015 han obtenido este título 85 becarios.*

2015ko promozioan 370 bekadun izan dira formatuak Global Training programaren bitartez.

*Se han formado 370 becarios en la promoción 2015 del programa Global Training.*

11 hitzarmen sinatuak izan dira programaren agente kolaboratzaile pribaturekin.

*Se han firmado 11 convenios con agentes privados colaboradores del programa.*

### 3. EUSKAL ESPORTAZIOEN HELBURU GEOGRAFIKO ETA SEKTORIALA DIBERTSIFIKATZEA

### *3. DIVERSIFICAR EL DESTINO GEOGRÁFICO Y SECTORIAL DE LAS EXPORTACIONES VASCAS*

Elkartzen laguntza programaren bitartez, 30 elkarte desberdinek burututako dibertsifikatze ekimenen finantziazioa jaso dute; horrela, 380sustapen ekimen burutu ahal izan dira.

*A través del programa de ayudas Elkartzen 30 asociaciones han visto financiada su actividad de diversificación geográfica, con 380 acciones de promoción directa.*

Merkataritza ganberek, baita ere, hogeita hamarren bat azoka eta zuzeneko misio burutu dituzte, horretarako sinatu zen hitzarmenari esker.

*Las cámaras de comercio, por su parte, han realizado una treintena de misiones y ferias, a través del convenio firmado al efecto.*

### 4. KANPOKO JARDUERAK ERAKARTZEKO GAITASUNA FABORATZEA

### *4. FAVORECER LA ATRACCIÓN DE ACTIVIDADES DEL EXTERIOR*

2015ean zehar SPRIk kudeatu ditu 50 atzerritar inbertsio-egitasmo berri, gainera, 5 egitasmo berri gauzatu dira.

*A lo largo de 2015 se han gestionado por parte de SPRI 50 nuevos proyectos de inversión extranjera y se han concretado 5 nuevos proyectos de inversión.*

Halaber, 22 topaketa egin dira beste horrenbeste enpresa atzerritarrekin eta geureganatze agenterekin.

*Asimismo, se han celebrado 22 encuentros con empresas extranjeras existentes y se ha contactado con 22 nuevos agentes de captación.*

### LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA ETA LEHIAKORTASUNERAKO LANKIDETZA

### *ESTRATEGIA DE COOPERACIÓN PARA LA COMPETITIVIDAD*

2015 urtean lagundu ditugu 11 lehentasunezko kluster eta beste horrenbeste aurre-kluster sektorial, honako elkarte hauen bitartez: ACEDE, ACICAE, ACLIMA, AFM, AFV, ALIMENACIÓN, BBC, EIKEN, ENERGÍA, ERAIKUNE, ESKUIN, FMV, GAIA, HABIC, HEGAN, LANGUNE, MAFEX, MLC – ITS, PAPEL, SIDEREX, SIFE, UNIPORT.

*A lo largo de 2015 se han apoyado a 11 clústers prioritarios y otros 11 preclústers sectoriales, a través de las asociaciones siguientes: ACEDE, ACICAE, ACLIMA, AFM, AFV, ALIMENACIÓN, BBC, EIKEN, ENERGÍA, ERAIKUNE, ESKUIN, FMV, GAIA, HABIC, HEGAN, LANGUNE, MAFEX, MLC – ITS, PAPEL, SIDEREX, SIFE, UNIPORT.*

Elkarte hauek gauzatu dituzten ekintzen kopurua 400tik gorakoa da, honako arlo hauetan: berrikuntza teknologikoa eta enpresakoa, eta nazioartekotzea.

*Las acciones implementadas por estas asociaciones en los ámbitos de la innovación tecnológica o empresarial, y de internacionalización, supera la cifra de 400.*